

Aldaketa. Lana. Demokrazia. Alternatibak

*Si tú cambias, el mundo cambia*



LAN ERREFORMA  
USTELA

> 04. ORR

LEHEN ARRETA:  
PANDEMIA BAINO, ENDEMIA

> 16. ORR

KALE GORRIA BIZITOKI

> 32. ORR

Dora Salazar

Artista, activista  
y feminista





4

ERREPORTAJEA

**Lan Erreforma  
ustela  
Rajoy eta Zapateroren bidean**



15

GAIA


**Lehen arreta:  
Pandemia baino,  
endemia**



24

ELKARRIZKETA

**Dora Salazar:  
“Tenemos el deber  
de ser activistas  
y feministas”**



42

ELKARRIZKETA

**Entrevista con  
Isabel Otxoa:  
Cuidadoras low cost**

**ERREDAKZIO TALDEA**

*Zuzendaritza:* Iván Giménez eta Nagore Uriarte.

*Koordinazioa:* Nerea Ispizua.

*Lantaldea:* Gorka Quevedo, Gabriel Zeberio, Lander Zabaleta eta Davide Cabaleiro.

*Argazkiak:* ALDA eta Foku.

*Ilustrazioa:* IratINK.

*Argitarazle:* ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00.

**www.ela.eus/alda** • alda@ela.eus

*Lege-gordailua:* BI-425-2018

*Ale kopurua:* 100.750



ALDAko ahotsa | Editoriala .....**03**

Iritzia: Joanes Igeregi .....**10**

Iritzia: Asier Blas .....**12**

ALDAko Hiztegia:

Brecha salarial.....**23**

Erreportajea:

Kale gorria bizitoki.....**32**

KulturALDA .....**38**

ALDAko irakurleak .....**39**

ErALDATzen .....**40**

PostALDA .....**48**

# El problema de la vivienda tiene solución: ALDA está en ello

**E**l inaccesible precio para acceder a una vivienda es una de esas cuestiones aparentemente irresolubles, que no se pueden cambiar. Se suceden leyes, normativas, movilizaciones (no tantas...). Para dejarlo todo, más o menos, como está. Eso sí, si entra dinero público con el supuesto objetivo de "ayudar a la juventud", el que acaba ganando siempre es el propietario, en cuyo bolsillo acaba siempre el dinero procedente del presupuesto público.

Y, sin embargo, hay ejemplos en Euskal Herria para demostrar que el acceso a la vivienda se puede facilitar si hay organización social, movilización y se fuerza el compromiso político para ello. Las personas que leen ALDA ya sabéis que ALDA no es sólo el nombre de una revista. También identifica al movimiento social nacido en 2020 para defender los intereses de las clases populares de Iparralde. En tan poco tiempo ha conseguido demostrar que cuestiones inamovibles como la carestía de la vivienda pueden combatirse con eficacia e, incluso, cambiarse.

De hecho, su campaña de concienciación sobre la vivienda logró que el 20 de noviembre pasado, junto a otros agentes convocantes, más de 8.000 personas se manifestaran en Baiona para exigir modificaciones en las leyes sobre vivienda. Y el primer resultado legislativo está al caer.

Previsiblemente, el CAPB (entidad administrativa de Iparralde) del 5 de marzo de 2022 aprobará una norma que en el Estado español sería revolucionaria, pero que ya existe en grandes ciudades como París, Nantes o Burdeos: consiste en obligar a los propietarios que desean alquilar de forma permanente un alojamiento turístico tipo Airbnb a ofertar un nuevo alojamiento de superficie equivalente y ubicado en la misma zona para el alquiler anual no turístico. Esto dificultará el uso especulativo de la vivienda (un bien de primera necesidad), que tiene como efecto neto el aumento de los precios del mercado inmobiliario. Como ventaja previsible, el parque de vivienda disponible se ampliará y la carrera alcista de precios se verá atenuada al limitar el impacto del alquiler turístico. Ambos efectos serán beneficiosos para la población local.

Habrà que celebrarlo el 5 de marzo, en Baiona. **A**



---

**Os recordamos que Landeia se ha reconvertido en una revista bimestral dirigida a la acción sindical que, en principio, está concebida para ser enviada a los delegados y delegadas. Si no lo eres y quieres seguir recibéndola en papel, solicítala en: ELA, Komunikazio bulegoa. Barrainkua 13, Bilbao o Landeia@ela.eus. Por otra parte, en nuestra web: [www.ela.eus](http://www.ela.eus) podrás descargarla la versión digital de ambas publicaciones, tanto ALDA como Landeia.**

---



# Lan Erreforma ustela Rajoy eta Zapateroren bidean

“Ez gaitzazue Madrilén saldu” lelopean egindako mobilizazioek emaitzak izan dituzte; ez da izan, ordea, euskal alderdiek Kongresuan defendatu dutelako bertan negoziatzeko eskubidea, baizik eta presio sindikala eta sozialari esker. Hala ere, Rajoy eta Zapateroren lan erreformen elementu kaltegarriek indarrean dira. Beraz, galdera da: Eta orain zer?



## IVÁN GIMÉNEZ

“Queda derogada la reforma laboral”- iragarri zuen Meritxel Batetek, Espainiako Kongresuko presidenteak, Pedro Sánchezen, Yolanda Díazen eta euren alderdikideen etsipena eta harristasuna agerian utzita.

40 segundu horietan, PP eta Voxeko diputatuek ospatu zuten Sánchezen Gobernuaren porrota.

Ezustean, Batetek zuzendu zuen berak gaizki egindako batuketa (bozka presentzialak gehi telematikoak), dekretua onartuta geratu zela iragartzeko. Besarkadak eta ospakizunak alde batetik bestera aldatu ziren, eszena esperpentiko batean. Inork ez zekien nola, baina Espainiako Gobernuak, CCOO, UGTk eta CEOEk sinatutako akordioak indarrean jarraituko du eta Rajoy eta Zapateroren erreformaren alderik lazgarrienak pairatzen jarraituko dute langileek.

Hortik minutu gutxira ezagutzera eman ziren bozketaren atzeko azpijokoak: UPNko bi diputatuek euren alderdiaren eta PSOEren arteko akordioari bizkarra eman zioten, oraindik orain argitu gabe dauden arrazoi ilunengatik. Beraz, kontuak are ilunagoak bihurtu ziren. Nola demontre onartu zen dekretua, bi bozka horiek ezezko multzora gehitu baziren?

Beste esperpento batek argitu zuen gertatutakoa: Extremadurako PPko diputatu bat nahasi omen zen bozka telematikoa ematerakoan, eta lan erreformari baiezkoa ematen zion botoia sakatu zuen. Nahi gabe? Batek daki. Baina azken finean,



PPk (bozka batekin bazen ere) eta Ciudadanosek salbatu zuten patronala, Gobernuak, CCOO eta UGTren erreforma.

Otsailaren 3ko Kongresuaren bozketaren kronikak maisuki deskribatzen du nola izan den lan erreformaren prozesua eta, larriagoa dena, oso ongi islatzen du zein modu hutsalean erabakitzen diren langileei eragiten dizkien legeak. UPNko barneko borroka ustelak, PSOEren sekretupean emandako negoziazioak (seguruenik aitorrezinak diren baldintzekin) eta PPko jokaera iluna oso elementu larriak badira ere, ohikoak eta ezagunak dira. Beste batzuetan gertatu dena orain ere gertatu da. Lan erreforma ustela, ustela den Kongresu batek onartuta.

Hala ere, kasu honetan, emaitza oso larria da:

Zapaterok (2010) eta Rajoyk (2012) inposatu zituzten lan erreformek indarrean diraute, salbuespen txiki batzuekin. Gainera, Kongresuan gertatutakoak zapalduko eskubideak berreskuratzeko bidea asko zailduko du. Beste modu batez esanda: erreforma hau ez da egin langileen eskubideak berreskuratzeko, patronala asetzeko baizik. Gainera, PPren boto horrek salbatu zuen Diaz ministroaren eta UGT-CCOOen akordioa: gertatutakoak egoera barregarri batean utzi du elkarrizketa soziala.

### Zilegitasunik gabe Euskal Herrian

Dena den, badira beste irakaspen batzuk ere, Euskal Herriatik begiratuta. EAJK eta EH Bilduk dekretua arbuia izanak, albiste ona ez ezik, aktibo bat izan behar du ere aldarri batzuk etorkizuneko negoziatioetan lehentasun politiko bilakatu daitezten; esaterako, euskal

La ministra Yolanda Díaz, el PSOE y Unidas Podemos han incumplido su programa y sólo han negociado en la mesa de diálogo social. Allí, CCOO y UGT no tienen ninguna fuerza y la patronal se ha aferrado a las reformas que tanto poder le han dado.

**NO!**  
**A ESTA REFORMA LABORAL**

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

Reformas 2010 - 2012 PSOE - PP	Lo que supondría la derogación	¿Ahora cambia algo?
INDEMNIZACIÓN POR DESPIDO 33 DÍAS AÑO X 24 MESES	INDEMNIZACIÓN 45 DÍAS AÑO X 42 MESES	NO
DESpidos COLECTIVOS (ERE) SIN CONTROL ADMINISTRATIVO	DESpidos COLECTIVOS (ERE) CON CONTROL ADMINISTRATIVO	NO
DESpidos OBJETIVOS POR PREVISIÓN DE PERDIDAS EN LA EMPRESA	SÓLO TRAS PERDIDAS ECONÓMICAS REALES DE LA EMPRESA	NO
POSIBILIDAD DE QUE LOS CONVENIOS DE EMPRESA EMPEOREN EL SECTORIAL	LOS CONVENIOS DE EMPRESA SÓLO PUEDEN MEJORAR LAS CONDICIONES DE TRABAJO	A MEDIAS, SOLO EN LOS SALARIOS
QUE LAS PERSONAS DESPIDIDAS NO PERCIBAN LOS SALARIOS DE TRAMITACIÓN POR DESPIDO	RECUPERACIÓN DE LOS SALARIOS DE TRAMITACIÓN	NO
LOS CONVENIOS ESTATALES PUEDEN LIMITAR O IMPEDIR LA NEGOCIACIÓN DE CONVENIOS EN EUSKAL HERRIA	LOS CONVENIOS FIRMADOS EN EUSKAL HERRIA TENDRÍAN PRIORIDAD SOBRE LOS ESTATALES	NO
ULTRAactivIDAD DE CONVENIOS DE UN AÑO	ULTRAactivIDAD INDEFINIDA	SI
POSIBILIDAD DE INCUMPLIMIENTO DE CONVENIOS POR PARTE DE EMPRESAS	NECESIDAD DE ACUERDO PARA MODIFICAR EL CONVENIO	NO
MOVILIDAD GEOGRÁFICA POR DECISIÓN UNILATERAL DE LA EMPRESA	MOVILIDAD GEOGRÁFICA LIMITADA DEL PERSONAL	NO
POSIBILIDAD DE QUE LAS EMPRESAS IMPONGAN UNILATERALMENTE EL 10% DE LA JORNADA	FLEXIBILIDAD SÓLO MEDIANTE ACUERDO	NO
LA EMPRESA PUEDE MODIFICAR LA CLASIFICACIÓN PROFESIONAL	MODIFICACIÓN DE LA CLASIFICACIÓN PROFESIONAL SÓLO POR ACUERDO	NO



El Gobierno español y los partidos que han aprobado la reforma han lanzado un mensaje claro a la clase trabajadora: “No os vamos a dar facilidades; no vamos a molestar a la patronal ni a restaurar derechos; lo que os negamos por ley lo tendréis que conseguir peleando como siempre”.



hitzarmenen lehentasuna, kaleratze errazaren aldaketa edota EEEn (kaleratze kolektiboak) baimen publikoa. Hain zuzen ere, euskal gehiengo politikoak eta sindikalak agertu duten kontrako jarrerak agerian utzi du erreforma honek ez duela zilegitasunik Euskal Herrian.

Mitxel Lakuntzaren (ELAko idazkari nagusia) esanetan, “Zapateroren eta Rajoyren erreformak indargabetezko borroka ez da amaitu. Batetik, ELAk jarraituko du EAJri eta EH Bilduri eskatzen erreforma honetan ukitu gabeko gaiak (kaleratzeak, euskal hitzarmenen lehentasuna...) lehenetsi ditzaten Espainiako Gobernuarekin izango dituzten negoziazioetan”. Bestalde -esan zuen Lakuntzak-, Espainiako Gobernuak eta erreforma onartu duten alderdiek langile-klaseari mezu argi bat helarazi diote: ‘ez

dizuegu erraztasunik emango; ez dugu patronala gogaituko, ez eta eskubiderik berrezarriko ere; legez ukatzen dizueguna, beti bezala, borrokatuz lortu beharko duzue”.

Atzera begira, argi geratu da Yolanda Diaz ministroak, PSOEek eta Unidas Podemosek ez dutela beren programa bete, eta negoziazioa elkarrizketa sozialeko mahaira mugatu dela. Bertan, CCOOK eta UGTk ez dute inolako indarrik, eta patronalak gogor eutsi die hainbeste botere eman dioten erreformei. Ondoren, PSOEek eta Unidas Podemosek eragotzi egin dute dekretua Kongresuan eztabaidatzea, oso jokabide antidemokratikoa erakutsiz; finean, jokaera horrek alderdiek patronalaren eta botere ekonomikoaren aurrean duten jarrera otzana erakusten du. Agerian geratu da CCOOK eta UGTk

negoziatzeko botere eskasa dutela eta ez direla gai izan CEOErekin hitzartutako testuan hobekuntzak sartzeko.

### Eta orain zer?

Kongresuan lan erreforma bozketa negargarrian onartu denetik egun batzuk igaro dira, eta egoera berria aztertu behar da; aurten sektoreko 93 lan-hitzarmen daude irekita (71 EAEn eta 22 Nafarroan), gehi beste 404 enpresako hitzarmen (73, Nafarroan). Funtsean Rajoyk 2012an ezarritakoa bere horretan utzi duen erreforma ikusita, helburuak ez dira aldatu: prekaritatea borrokatu, soldata-arrakala gairatu eta gutxienez KPI bermatzea.

Horretarako, ELAk lantokietako borroka indartu beharko du eta sektore guztietan estatalizazioak zein kaleratze kolektiboek eragiten dituzten kalte handiei aurre egin; izan ere, bi atal horietan ez da aldaketarik izan, Espainiako Gobernuak, UGTk eta CCOOK patronalari abusuzko posizioa bermatu diotelako.

Estatalizazioak berdin-berdin jarraitzen du, azken unera arte euskal hitzarmenen lehentasuna negoziatzeko mahaietan egon bada ere. Azkenean, alferrik. UGTk eta CCOOK Madrilin sinatzen dituzten hitzarmenak etengabe ari dira euskal langileen baldintzak okertzen. Bertan negoziatzeko eskubide demokratikoa ere ukatzen dute, materia asko Madrilgo mahaietara eramaten dute eta Euskal Herrian hitzarmen berriak irekitzea galarazten dute.

### Estatalizazioak emakumeak kolpatzen ditu

Mari Cruz Elkorok (ELAko Zerbitzuak Federazioaren idazkari nagusia) nabarmendu du Estatu mailako hitzarmenek eragiten duten prekaritatea are larriagoa



dela sektore feminizatuetan; arlo honetan erreformak ez du ezer aldatu. "Yolanda Diaz ministroak esan duena, hau da, oraingo erreformarekin prekaritateari aurre egin nahi zaiola, ez da egia; inola ere ez". Elkorok bi datu oso larri aipatu ditu ministroak esandakoa gezurtatzeko:

"Eskola-jantokietako beharginei Ostalaritzako hitzarmen probintziala aplikatu ordez sukaldaritza kolektibokoa ezarri zaie, Estatu mailakoa: Bizkaian orduko 11,49 euro jaso ordez orduko 7,6 euro kobratuko dute, eta urtean 50 ordu gehiago egin. Beste kasua Bulego eta Despatxuen sektorea da: hitzarmenaren indarraldia bukatu zen eta Estatu mailakoa aplikatzen hasi zen. Kategoriaren arabera, langileek urtean 3.000 eta 5.000 euro gutxiago irabaziko dituzte", UGTk eta CCOOek Madrilen sinatu dituzten akordioen ondorioz; hots, EAEn ordezkaritzaren %30era ere iristen ez diren bi sindikatuek sinatutakoaren ondorioz.

### Estatuko greben erdiak, Euskal Herrian

Datu ofizialen arabera, 2021ean Estatuko greba guztien %42 eta greba medio galdutako egunen %45,7 EAEn izan dira. Honi Nafarroako datuak erantsiz gero, ondorioa da CCOOek eta UGTk gehiengoaren erdidegoen adina greba egiten direla ELA dagoen lurraldeetan. Behin eta berriro agerian geratzen denez, CCOOen eta UGTren helburua mobilizazioa indargabetzea eta langileen indarra moteltezea da.

Pello Igeregik (ELAko negoziazio kolektiboaren arduraduna) 2022rako "etorkizun beltza" iragarri du: "Pandemiaren ondorioek, lehengaien garestitzeak, hornidura arazoek eta KPI altuek areago konplikatu dute negoziazio kolektiboa. Izan ere, patronalak KPI altua (%6,5 2021ean) baliatu nahi du jendearen erosahalmena are gehiago murrizteko".

La postura contraria a la Reforma Laboral mostrada por la mayoría política y sindical vasca ha puesto de manifiesto la ilegitimidad de esta reforma en Euskal Herria. Así las cosas, la lucha para derogar las reformas de Zapatero y Rajoy no ha terminado. Por un lado, ELA seguirá reclamando al PNV y a EH Bildu que prioricen las cuestiones no tocadas (despidos, prioridad de los convenios vascos) en las negociaciones con el Gobierno español; por otro, seguirá luchando en las calles y en los centros de trabajo contra esta reforma, como lo ha hecho hasta ahora.



"Beraz -nabarmendu du Igeregik-, gure eginkizuna izango da negoziazio kolektiboa edukiz betetzea". ELArentzat hitzarmenetan honako puntuak sartu behar dira:

- **1.** KPlz gaindiko soldata igoerak, aberastasunaren banaketan pisua irabazteko; Euskal Herrian hitzarmeneko gutxieneko soldata 18.200 euro izan behar dira, eta igoerak lortu, soldata-arrakala leuntzeko.
- **2.** Prekaritatearen kontrako neurri eragingarriak, batik bat subrogazio eskubidea eta arlo publikoan behin-behineko iruzurrezko kontratuekin diharduen jende guztiaren kontsolidazioa.

➤ **3.** Lanaldiaren murrizketa gatazken ardatz bihurtzea, digitalizazioak ez dezan lanposturik suntsitu.

➤ **4.** Lan erreforma negoziazio kolektiboaren bidez indargabetzeko neurriak, esaterako ELAren klausula hitzarmenaren aplikazioan salbuespenik ezar ez dadin.

"Gogoratu beharra dago -erantsi zuen Igeregik- 2022 urtearekin batera ELAren greba kutxa kontsolidatu egin dela: gutxieneko ordaina greba hileko 1.243,59 euro dira; 1.430,13 euro, afiliazio altua duten sektore eta enpresetan. Afiliazio maila altua eta antolakuntza ona izango dira, aurren ere, negoziazio kolektiboko oinarriak". [A](#)



# Reforma laboral: esto no se acaba aquí

IVÁN GIMÉNEZ

Si algo ha quedado claro, es que los elementos más lesivos de las reformas laborales de Zapatero (2010) y Rajoy (2012) siguen en pie, ahora con el visto bueno de CCOO, UGT y el Gobierno de PSOE y Unidas Podemos (evidentemente, el apoyo de la patronal ya lo tuvo entonces). La mejor prueba de que casi todo sigue igual en favor de los intereses empresariales es que formaciones de derechas como Ciudadanos, PDeCat o UPN (el partido apoyaba el decreto, a pesar de que sus dos diputados votaran en contra) se unieron a Pedro Sánchez haciendo un paréntesis en su oposición total al Gobierno. A última hora, incluso, se sumó el voto salvador de un diputado extremeño del PP, por error o... por lo que sea.

Para alguien de derechas, la ocasión merecía la pena: había que consolidar el abuso empresarial vigente, ahora además con el barniz legitimador de CCOO, UGT y de la ministra Yolanda Díaz, que vino para enarbolar la bandera de la lucha obrera y ha acabado implorando apoyos para que las empresas sigan con sus despidos colectivos, sin pagar salarios de tramitación, despidiendo muy barato e imponiendo condiciones de miseria con una negociación colectiva antidemocrática (estatalización de convenios).

En resumen, la situación en los centros de trabajo no varía gran cosa tras la esperpéntica votación del 3 de febrero en el Congreso. El campo de juego para negociar condiciones laborales prácticamente sigue igual. "Lo que PSOE, Unidas

Podemos y el resto de partidos que apoyaron la reforma han dicho a la clase trabajadora es que no van a recibir ningún apoyo legislativo para combatir los abusos empresariales -resume Mítxel Lakuntza-; lo que consigáis, tendrá que ser luchando, como hasta ahora". Por eso, esto no se acaba aquí: por un lado, la oposición de PNV y EH Bildu a la reforma tiene que traducirse en mantener las reivindicaciones vivas en todas sus negociaciones con el Gobierno español (ERE, despidos colectivos, fin de la estatalización); y ELA trasladará a la negociación en los centros de trabajo la intensidad de su lucha contra la reforma. Que la mitad de las huelgas del Estado en 2021 se realizaran en Euskal Herria es la prueba de que ya se combatía con fuerza aquella reforma de Rajoy.

El 3 de febrero no fue el final de nada, sino otro comienzo. Uno más. ▲





Joanes Igeregi, Sukar Horia talde ekologistaren kidea

# Krisi ekologikoak eta klase borroka

Desazkundeak merezi baino fama txarragoa du. Arlo askotan on egingo digu, ziurrenik. Izan ere, energia eta material asko bizitzaren aurka erabiltzen dira: kontrol soziala, armagintza, alferreko joan-etorriak... Ondo bidean, baliabide gutxiko mundu batek sare hurbilak indartu ditzake, eta hierarkizazioa higatu.

**S**albuespen egoera bizi dugu. Joan den mendean, munduko biztanleria 4 bider handitu zen, energia kontsumoa 13 bider, BPGa 14 bider, eta CO2 isurketak 17 bider. Hiru hankak eutsi diote hazkunde neurrigabe horri: berrikuntza tekno-zientifikoek, kapitalismoaren logikak eta erregai fosilek. Hirurak herrenka dabilta.

Agortzera doa petrolioaren hazkundearen oinarria. 2005ean gainditu zen petrolio konbentzionalaren gailurra. Orduetik, erauzketa gainbehera dator. Beherakada ordezkatzeko, kalitate txarragoko petrolioaren bila jo behar izan du kapitalak, teknika zikinagoak erabiliz eta trukean energia gutxiago lortuz (fraking-a, petrolio ultra-astunak...). Baina hurbil daude petrolio ez-konbentzionalen, gasaren, ikatzaren eta uranioaren gailurrak ere. Energia gutxiko mundu baterantz goaz.

Energia-krisiarekin batera, beste erraldoi bat datorkigu ate joka: klima larrialdia. Industria aurreko garaian baino 1,1 °C gehiago dugu dagoeneko eta, martxa honetan, mende amaieran 3-5 °C gehiago izan genitzake. Gizakia ez da inoiz hain tenperatura altuetan bizi izan. Injustizia poetikoa dario klima aldaketari: Iparraldeko biztanle aberatsek eragin dute nagusiki, baina Hegoaldeko biztanle pobretuek jasango dituzte ondorio larrienak.

Energia eta klima, hazkundearen baldintza eta ondorioa. Hegal batetik, energia eskasiak diosku hazkundera ezinezkoa dela. Bestetik, klima egonkortasunak diosku, ingurune bizigarria nahi badugu, erregai fosilen % 80 lurpean utzi behar genukeela. Horrela, desazkundeak utzi dio hautu politiko soila izateari, saihestezina da. Kontua da gure sistema ez dagoela eginda hazi gabe irauteko. Ez daki. Krisi ekologikoak eragina izango du, ezinbestean, gizarte-antolamenduan ere. Ezin dugu zehaztu abiadura eta sakontasuna, baina beheranzko joera usain dezakegu zenbait arlotan: ekoizpena, kontsumoa, mugikortasuna, teknologia...



Energía y clima, condición y efecto del crecimiento. Por un lado, la escasez de energía nos dice que el crecimiento es imposible. Por otro, la estabilidad climática nos dice que si queremos un medio habitable deberíamos enterrar el 80% de los combustibles fósiles. Así, la desaceleración ha dejado de ser una simple elección política; es inevitable. Lo que pasa es que nuestro sistema no está hecho para mantenerse sin crecer. No sabe cómo hacerlo. La crisis ecológica repercutirá inevitablemente también en la organización social. No podemos determinar la velocidad ni la profundidad, pero sí podemos sospechar la tendencia a la baja en áreas como la producción, el consumo, la movilidad, la tecnología...

## NOLA KUDEATUKO DU BEHERALDIA HAZKUNDEAREN MENDEKO SISTEMA BATEK?

Duela gutxi arte, ukapena izan da erantzun nagusia, arazoei entzungor egitea. Luza dezagun ahalik eta gehien erregai fosilen aroa, datorrena datorrela. Ukapena gaindituta, eliteek kapitalismo berdearen olatua hartu dute. Berrikuntza teknologikoei esker, hazkunde garbia lortuko omen dugu: deskarbonizatua, elektrikoa, digitala, immateriala.

Estrategia horren zentroan, berriztagarriak beharrezkoak izango dira, jakina. Askatzaileak ere izan litezke, demokratikoki kudeatuta, eskala txiki eta deszentralizatuan. Ezingo dute, baina, gaurko kontsumoa osorik bete, are gutxiago hazkundea elikatu. Mundu digitala, berriz, oso intentsiboa da mineral eskasetan, eta eragin izugarria du berotze globalean. Munduak ez du oinarri biofisikorik, beraz, saltzen ari zaizkigun energia-trantsizioa burutzeko, ez guztiontzat. Kapitalismo berdeak gutxi batzuentzako salbamendu txalupak dakartza, eta beste guztiontzako miseria.

Nola lortu trantsizioa burutzeko mineralak? Nola bermatu hazkunde eskasia orokortzean?

Haien kontsumoari eusteko, eliteak hasiak dira lanaren eta kapitalaren arteko soka tenkatzen, eta baliabide estrategikoak metatzen: meategiak, akuiferoak, lur emankorrak... Testuinguru horretan ulertu behar genituzke azken hamarkadetako eraso neoliberal eta kolonialak. Merkatuaren indarra nahikoa ez denean, hor dute indarkeria, pribilegioei eusteko prest. Labainkorra da kapitalismo berdetik ekofaxismorako malda. Neurri batean, bata bestearen ondorio dira.


Trantsizio ekosoziala lortzeko, biak sentitu behar ditugu: egoeraren larritasuna eta eraldaketarako aukerak.

Desazkundeak merezi baino fama txarragoa du. Arlo askotan on egingo digu, ziurrenik. Izan ere, energia eta material asko bizitzaren aurka erabiltzen dira: kontrol soziala, armagintza, alferreko joan-etorriak... Ondo bidean, baliabide gutxiko mundu batek sare hurbilak indartu ditzake, eta hierarkizazioa higatu.

Horretarako, zentzuz erabaki beharko dugu zer eremu murriztu eta zer jarduerari eutsi. Batetik, oinarritzko beharrekin lotutako lanak hauspotu eta birlokalizatu behar genituzke (elikadura, zaintza,

konponketak...). Kutsadura eta xahutzea dakarten jarduerak (industria astuna, turismoa...), berriz, txikiagotu beharko dira. Bide horretan, oreka prekario bat gorde beharko dugu galdu eta sortzen diren enpleguen artean.

Bestalde, planetak guztion oinarritzko beharrak ase ditzake, baina ez du ematen Iparraldeko klase ertain-altuen bizimodua orokortzeko. Guztion beharrak bermatzeko, inoiz ez bezala banatu beharko ditugu baliabide gero eta urriagoak, jabe handiak desjabetuz. Gainera, auzitan jarri behar genuke jabetza pribatuaren eta merkatuaren nagusikeria, eta beharrak asetzeko beste bide batzuk indartu: ondasun komunak, zerbitzu publikoak, kontsumo partekatua... Murriztea eta banatzea buruan, elkarlanerako arrazoi onak ditugu mugimendu ekologistak eta langile mugimenduak.

Desadostasunak izango ditugu, noski. Esaterako, industria kutsatzaileak eta azpiegiturak murrizteak lanpostuen galera eragin dezake. Ezin dugu ahaztu, hala ere, bestelako lanpostuak sor daitezkeela baliabideak beste nonbait erabilia. Gainera, gaurko lanpostuek ez dute bide luzerik, oinarri ekologikoa higatuz mantentzen badira. Epe luzea buruan, kontraesana ez da langileen eta ekologisten artekoa, gaurko eta biharko interesen artekoa baizik. Horrela, ekologismoak oso gogoan izan behar luke klase ikuspegia, ingurumenaren izenean neurri erregresiborik ez babesteko; eta langile mugimenduak, aldiz, erne ibili behar luke, enpleguaren izenean txikiziorik ez zuzituzeko. 



**Asier Blas Mendoza**, director del Departamento de Ciencia Política y de la Administración de la UPV/EHU

## Los halcones están de vuelta

Harrigarria da Ukraina osoa errusiarren inbasioaren ustezko arriskuari aurre egiten ari gatzazkion desinformazioa eta propaganda. Frogak ez dira existitzen, baina hau ere ez da berria, Estatu Batuek eta Erresuma Batuak ohituta gauzate Irakeko suntsipen handiko armen moduko kanpaina mediatiko hauetara.

**E**s impresionante la desinformación y propaganda a la que estamos asistiendo al supuesto peligro de invasión rusa de toda Ucrania. Las pruebas son inexistentes, pero esto tampoco es una novedad, Estados Unidos y el Reino Unido nos tienen acostumbrados a estas campañas mediáticas como la de las armas de destrucción masiva en Irak.

Sin embargo, en esta ocasión llama la atención la estrategia rusa de adaptarse y aprovechar el marco creado por el relato de la Casa Blanca. Si bien es cierto que han desmentido en numerosas ocasiones que vayan a invadir Ucrania, sí que han contribuido a la escalada haciendo movimientos de tropas, ejercicios militares y declaraciones contundente sobre sus demandas de parar la expansión de la OTAN e impulsar los acuerdos de Minsk. Este protocolo incluye un procedimiento de reintegración de las repúblicas autoproclamadas independientes en Ucrania como territorios autónomos. Así, Rusia cree que las repúblicas "pro-rusas" se reforzarían como primer paso para reconstruir la influencia política, económica y cultural rusa en Ucrania.

En Ucrania, en la región del Donbas, hay una guerra civil desde hace ya casi ocho años, en la que el bando rebelde cuenta con el apoyo y protección de Rusia. Ciertamente desde los acuerdos de Minsk en el 2014 y 2015 el enfrentamiento es de baja intensidad, pero no por ello el número de muertos ha dejado de aumentar hasta casi los 15.000.

Kiev puede tener la tentación de recuperar los territorios rebeldes mediante una operación a gran escala; idea que se vio espoleada tras el exitoso ataque de Azerbaiyán contra Nagorno-Karabaj en el 2020. Ante esta posibilidad, la concentración de tropas rusas cerca de la frontera ucraniana busca disuadir a Ucrania de caer en la tentación de Nagorno-Karabaj, a la vez amenaza con un escenario similar al del 2008 en Georgia, cuando Tbilisi lanzó un ataque a gran escala contra Osetia del Sur que fue respondido contundentemente por Rusia.



Horren guztiaren erdian, agian tristeena da ikustea ukrainar guztien subiranotasun-galera inoiz baino argiagoa dela, bai Kievek kontrolatzen duen lurraldean, bai Donetsk eta Luhansk kontrolatzen duten lurraldean. Zuzenean, nazioarteko potentzien tresnak dira, beren helburu geopolitikoak lortzeko. Ukrainarren ahotsa ez da entzuten, baina gerra geldiarazten ez bada, odola jarriko dute.

Si Kiev lanzase una operación militar de alto alcance contra el Donbas, Rusia podría realizar una operación que tratase de restituir el control rebelde de los territorios que actualmente ocupan las repúblicas independizadas, o ir más allá, hasta dejar bajo control de los rebeldes toda la región del Donbas.

### EXPANSIÓN DE LA OTAN

No obstante, los movimientos militares rusos no solo responden al conflicto del Donbas, son también una respuesta al proyecto de expansión de la OTAN. Esta es la preocupación fundamental que tiene Rusia. Se ha hablado hasta la saciedad de todas las promesas incumplidas de no expansión al Este. Pero no es solo eso, recordemos que la OTAN tiene definida a Rusia como el enemigo, y la mayoría los socios de la alianza atlántica aplican sanciones contra Moscú. Por si esto fuera poco, desde el Kremlin observan con preocupación cómo Estados Unidos se ha retirado de forma unilateral de varios tratados de no proliferación y estacionamiento de armas de destrucción masiva. Desde una lógica de la defensa parece bastante comprensible la preocupación rusa.

Respecto a los motivos de EEUU para iniciar y alimentar esta escalada, hay que tener en cuenta que la teoría conspirativa del

conflicto ucraniano está sirviendo a la administración Biden para atenuar la división y polarización sociopolítica en la que está inmerso el país. Pero, además, la escalada también le ha reportado beneficios materiales a Washington, como el fortalecimiento del dólar que le ayuda a combatir una inflación y deuda creciente, o el aumento muy importante del negocio de la venta de armas.

En la dimensión exterior el capital norteamericano y el occidental sueña con una colonización económica de Rusia, de sus materias primas y del sistema financiero, sería una transfusión de sangre para mejorar la salud de un enfermo que cada vez ve más cercano el afianzamiento de un mundo multipolar bajo liderazgo chino. Sin embargo, la alianza sino-rusa está más fuerte que nunca. La integración económico-comercial eurasiática va a todo tren gracias a la nueva ruta de la seda impulsada por China, aunque falta una pata importante, la Unión Europea. De ahí que Estados Unidos intente generar o impulsar cualquier tipo de conflicto y tensión en Eurasia que sirva para molestar a Rusia y China.

Una tensión que a Washington le sirve para cohesionar a la OTAN y para anclar a los intereses estadounidenses a la Unión Europea. Sin Europa

EEUU desaparece del escenario eurasiático y no estar en el gran continente significa dejar de ser la potencia hegemónica mundial. De ahí que Washington insista en cortocircuitar cualquier tipo de entendimiento entre la UE y su vecindario eurasiático. La Casa Blanca es especialmente dura con Rusia, a la que sigue presionando en una estrategia de largo alcance para erosionar su gobierno. Su objetivo es promover un cambio de régimen que facilite un escenario de mayor subalternidad rusa respecto a Occidente. La fecha clave es la retirada de Vladimir Putin, en principio programada para 2024, pero que tras la reforma constitucional de 2020 podría retrasarse aún más.

### NEGOCIACIÓN RUSIA-EEUU

El Kremlin entiende perfectamente a lo que está jugando EEUU y, por ello, directamente negocia ya sus demandas con Washington, el único que manda en el bloque occidental, porque si bien la mayoría de la Europa continental, incluyendo Ucrania, han acabado por desmarcarse de las teorías conspirativas de EEUU, ello no significa que vayan a empoderarse y defender los intereses de la UE por encima de los estadounidenses.

En medio de todo ello, quizás lo más triste es observar cómo la pérdida de soberanía de todos los ucranianos es más clara que nunca, tanto en el territorio que controla Kiev como en el que controlan Donetsk y Luhansk. Directamente son herramientas de las potencias internacionales para la consecución de sus objetivos geopolíticos. La voz del pueblo ucraniano no se escucha, pero si estalla la guerra verá su sangre derramada. [▲](#)





**LATOZ**  
**KALITATEZKO**  
**OSASUN**  
**PUBLIKOAREN**  
**ETALANGILEEN**  
**ESKUBIDEEN**  
**ALDE**  
**025**



# Lehen arreta: pandemia baino, endemia

COVID-19ak lehendik ere Hego EHko osasun sistema publikoek bizi zuten itolarria azaleratu du, baina arnasestuka ari ziren, aspaldi. Profesionalek pairatzen zuten prekaritatearen birusa herritarrengana hedatu du pandemiak, osasuna eta bizitza lehenetsiko dituen kalitatezko osasun sistema publikoaren beharra inoiz baino gehiago azaleratuz

## NAGORE URIARTE

Hego Euskal Herriko osasun sistema publikoetako langileak borrokan dira, Osakidetzan eta Osasunbidean pairatzen dituzten murrizketen aurka. Pandemiak hankaz gora jarri du lehen arreta, baina lehendik ere herren zebilen. Lehen arretan, pandemia baino, endemia bizi dute.

2020ko otsailaren 28an atzeman ziren COVID-19aren lehen bi kasuak Euskal Herrian: aretxabaletar bat Gipuzkoan eta Txagorritxu ospitaleko mediku bat Araban. Gaitza azkar hedatu zen, eta orduz geroztik, EAE eta Nafarroako osasun sistema publikoak eta bertako langileak gainezka ikusi ditugu. 2021eko abenduaren 7an heldu zen, ordea, alarma guztiak piztu zituen erabakia. Gotzone Sagardui Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak egin zuen jakinarazpena: "Aparteko larritasuna ez duten" kontsultak atzeratuko dira. Beste modu batera esanda, lehen mailako arretako osasun kontsulta guztiak atzeratuko zituen Osakidetzak. Adibide batzuk jarri zituen: bihotzeko arazoak dituztenen eta bronkitis kronikoa duten pertsonen kontrolak, esaterako, atzeratu egingo zituzten. "Jarraipen kontsultak garrantzitsuak dira, eta egingo

ditugu, baina aurrerago", baieztatu zuen. Lehen aldiz, ezinezkoa zen etxeko medikuarekin hitzordu presentziala egitea eta osasun arreta telefonikoa bilakatu zen. Gaixoen haserrea piztu zuen horrek, baina gaitza egon bazegoen Hego Euskal Herriko osasungintza publikoan COVID-19 heldu baino lehen. Osakidetzan eta Osasunbidean bizi zen prekaritatea pandemiak azaleratu zuen, baina gaitza endemikoa zen. Lehen arreta itolarrian zen, aspaldi.

## Pandemiak azaleratu duena

Pandemiak azaleratu ditu osasun sistemak aspaldi zituen gabeziak eta bizitza eta osasuna lehenesteko premia azpimarratu.

2020ko urriaren 16an, The Lancet aldizkari medikuak Espainiako osasun sistemari buruzko erreportajea argitaratu zuen, EAEko eta Nafarroako osasun sistema publikoen ispilu ere badena. Artikuluan ondorioztatu zuten, "2008ko krisi finantzarioaren ostean aplikatu ziren austeritate politikek osasun sarea ahuldu zuten. Langileak eta baliabideak falta dira, eta behargin gehienek egun gutxi batzuk edo aste batzuk baino irauten ez duten lan kontratuak dituzte".





Osakidetzak eta Osasunbideak, biek ala biek, bazituzten denboran luzatu eta okertu diren arazo estrukturalak, baina egoera are gehiago okertu zen pandemiak eztanda egin zuenean. Gauzak horrela, badira une honetan zenbait arazo larri: bajak, erretiroak eta bestelako absentziak ez dira ordezkatzeten; bezeroak artatzen dituzten langileen lan karga bikoiztu da; erizainen agendak beterik daude; AIPetan -Arreta Iraunkorreko Puntuak- murrizketak egin dituzte; eta urrian 4.000 profesional gutxiago zeuden.

### Profesionalen ihesa

Lehen arretak bizi duen prekaritatearen ondorioz, gero eta langile gehiagok alde egiten dute baldintza hobeen bila. Hiru dira, funtsean, kasuistika nagusiak: beste espezialitate batera jotzea, osasungintza pribatuan lanean hastea, eta atzerrira joatea.

Datuak dira horren adierazle. 2019an, pandemia lehertu baino lehen, Medikuen Elkargoak 4.100 baliokidetzak ziurtagiri luzatu zituen atzerrira joateko, aurreko urtean baino %18,7 gehiago. Familiako medikuntza espezialitatean erregistratu ziren eskari gehien.

Medikuez gain, lehen arretako beste esparru batzuetan ere gertatzen ari da, besteak beste, administrazioan eta erizaintzan. Sindikatuek sarri azpimarratu dutenez, Osakidetzako lan baldintzak erakargarriak izango balira, langileek ez lukete kanpora joko lan baldintza hobeen bila; are gehiago,

En Osakidetzak casi 8 de cada 10 trabajadores (7,9) son mujeres, pero los hombres cobran de media 12.639 euros más (Informe de Igualdad, Osakidetzak 2015).

Espainiar estatuko profesionalentzat ere pizgarria izango litzateke gurean lan egitea. Bada, gainera, albo-ondorioz: gehiegizko lan karga eta lan baldintza eskasaren ondorioz, profesional askok aurretiko erretiroa eskatzen dute eta langile faltaren arazo larria okertu da.

### Etorkizunik ez, belaunaldi aldaketarik gabe

Osakidetzak eta Osasunbideak dituzten egiturazko arazoaren artean bada bat bereziki kezkarria: belaunaldi aldaketa eza. 2021ean argitaratu zen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Osakidetzaren I. Planak jaso zuenez, langileen batez besteko adina 50 urtekoa da Osakidetzan (langileen %50,38k 50 urte baino gehiago du). Hori gutxi balitz, profesional gehiago dira erretiroa hartzen dutenak BAME (barruko mediku egoiliar) azterketaren bitartez sistemara batzen direnak baino. Osasunbidearen kasuan, eta 2020an kaleratutako memorian jaso zutenaz, langile finkoen artean hamarretik zazpi 51 urte baino gehiago ditu; 35 urte baino gutxiago dituztenak, berriz, %0,6 baino ez dira.



En 2022, el Gobierno Vasco destinará 4.352 millones al sistema público de salud, 17 millones menos que el año pasado. En 2010 el 17,6% de la población de la CAPV contaba con un seguro de salud privado, porcentaje que ha aumentado al 21,96% en 2020 (Eustat).

### Lan baldintza txarrak, zerbitzu kaskarra

Langileek sarritan defendatu dutenez, ezinezkoa da kalitatezko zerbitzua eskaintzea lan baldintzetan etengabe murrizketak egiten baldin badira. Tamalez, latza da errealitatea. Nafarroan, 2020an, 11.262 langile ziren -%80,2 emakumeak, %19,8 gizonak-, baina horietatik 4.862 baino ez ziren langile finkoak, alegia, %43,2.

Osasunbideako langileen erdiak aldi baterako lan kontratua dauka (%56,8); Nafarroako osasungintza pribatua, berriz, %20,1k (2020ko azken lauhilekoan), hau da, publikoan behin-behinekotasuna pribatua baino 36,7 puntu handiagoa da.

### Osakidetza: EAeko ABLErik handiena

Datuei erreparatuta, Osakidetza EAeko Aldi Baterako Laneko Enpresarik (ABLE) handiena dela ondorioztatu daiteke. Izan ere, Administrazioaren zifrei erreparatuta, 2021eko otsailean langileen %58 behin-behinekoa zen, alegia, 24.600 lagun. Horietatik 9.000 profesionalak zortzi urte baino gehiago daramatzate Osakidetzan lanean.

ELAk 2020ko 1era arte eskura dituen datuen arabera, Osakidetzan 36.000 langile ziren. Halere, egiturazko plantillan formalki sortutako lanpostuetan 29.400 langile daude, baina horietatik 17.740 bakarrik dira finkoak. Gainera, 5.200 langilek aldi batera kontratuak dituzte urte luzez, kasu askotan iruzurrezkoak, formalki sortutako lanpostuei esleitu gabekoak. Hortaz, Osakidetzan behin-behinekotasuna %40tik gorakoa da.

Zer egin horren aurrean? Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak 3.500 plaza esleitzeko ohiko EPE bat martxan jarri du jada. Ez du, ordea, aintzat hartu badirela, Eusko Legebiltzarrean zein Espainiar estatuan, enplegu publikoa kontsolidatzeko eta finkatzeko legeak. Horiek aplikatu ordez, EPEak egitea baino ez du proposatu Jaurlaritzak. Langile asko, berriz, kexu dira haien eguneroko lana oposizio baten prestakuntzarekin kontziliatu behar izatea badela nahikoa lan.

### Lanaldi partzialak

Osasun Ministerioko Ospitaleen Estatistika Autonomikoek diotenez, 2018an, 36.042 langile zeuden Osakidetzan, 6.121 lanaldi partzialarekin, hau da, lanaldi partzialeko kontratuen portzentajea %17koa zen.

### Prekaritatea eta generoa

Arazoa bereziki larria da emakumeen artean. Izan ere, 2016an argitaratu zen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Osakidetza I. Planak jasotzen zuenez, lanaldi partzialen %88,8 emakumeek egiten dute. Gainera, egoera okertu da. Osasun Sailak 2021eko otsailean Legebiltzarrean emandako datuen arabera, behin-behineko kontratua duten langileen %81 emakumeak dira.

### Soldata arrakala

Aurrekoaren ildotik, Osakidetza ere bada soldata arrakalarik, zehazki %24,4koa. 10 langiletik ia 8 (7,9) emakumeak dira, baina gizonak, batez beste, 12.639 euro gehiago kobratzen dituzte (2015eko datuak-Berdintasun txostena).

### Gero eta erosahalmen txikiagoa

Lan baldintzen okertzeaz hitz egiten denean, ezinbestean erosahalmena aipatu behar da. Osakidetza, galera %15etik gorakoa izan da 2010etik, Nafarroan %12.

### Europako inbertsiorik txikiena

Kezka nagusietako bat inbertsio falta da. Izan ere, oraindik ere, Europako batez bestekotik urrun dira Osakidetza eta Osasunbidea. Eskuragarri diren azken datuen arabera (2019), Europar Batasunean, batez beste, BPGaren %7,1 bideratu zen osasun sistema publikora; EAEn, berriz, %5,1 baino ez. Nafarroan ere datuek argi erakusten dute Europarekin alderatuta diru gutxi inbertitzen dela osasun sistema publikoan. 2017an BPGaren %5,1 izan zen inbertsioa Nafarroan; Europar Batasunean, berriz, %7. Espainiar estatuan, adibidez, %6,0 izan zen. Beste modu batera esanda, 28 herrialdeetako azken postuetan kokatuta daude EAE eta Nafarroako Gobernuak osasunera bideratzen den inbertsioari dagokionez.

Europar Batasunak egindako batez besteko inbertsioa parekatzeko Eusko Jaurlaritzak Osasun Sailera bideratzen duen diru partida %40 handitu beharko luke, hau da, 1.700 milioi euro gehiago bideratu; Nafarroako Gobernuak 2020an osasunean inbertitu duena baino 427,8 milioi euro gehiago inbertitu beharko lituzke.



## Fuga de profesionales

